



Usurbilgo Udala

**TOKIKO GOBERNU BATZARRAK 2022KO UZTAILAREN 12AN
GOIZEKO 9:20EAN EGINDAKO OHIKO BILKURAKO AKTA**

BERTARATUAK:

Alkatea: Agurtzane Solaberrieta Mesa.

Zinegotziak: Lur Etxeberria Gurrutxaga eta Itziar Basterrika Unanue.

Idazkaria: Garazi Etxeberria San Miguel.

Ez dira bertaratu: Beñat Larrañaga Urdanpilleta eta Joxe Mari Iribar Zapirain.

1.- 2022KO EKAINAREN 29KO BILKURAKO AKTAREN ONESPENA.

Batzarkideek 2022ko ekainaren 29ko bilkurako akta aho batez onartu dute.

**2.- GUREAK LANEAN, S.A. ENPRESARI, HAASETAKO A-78 (ZAPATEGI) EREMUKO ZATI
BAT EGOKITZEKO OBRETARAKO UDAL BAIMENA EMATEA.**

Esp. Zenbakia: HZ.04/2022-0131
2022-OHAN-0007

GUREAK LANEAN, S.A. enpresak aurkeztutako eskaera aztertu dut. Bertan, Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-78 (Zapategi) eremuko zati bat egokitzeko obretarako udal baimena eskatu du.

OBRAREN EZAUGARRIAK	
Exekuzio materialeko aurrekontua:	206.591,33 €
Obrari dagozkion hobariak:	Indarrean diren Ordenantza Fiskalen arabera hobariak ez dira aplikagarriak.
Hondakinen Kudeaketarako Azterlana:	Aurrekontua: 577,97 €
	Fidantza (%120): 693,56 €

TXOSTEN TEKNIKOA

Eskaera eta espedienteko dokumentazioa aztertu ostean, udal arkitektoak, Carlos Arroita Martinez jaunak, 2022ko ekainaren 27an ALDEKO txostena eman du.

Gauzak horrela, udal arkitektoaren txostena irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du:



Usurbilgo Udala

ERABAKIA

LEHENDABIZI: GUREAK LANEAN, S.A. enpresari, Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-78 (Zapategi) eremuko zati bat egokitzeko obretarako udal baimena ematea, ondorengo baldintzapean:

- **Obrak hasi aurretik:**

Hondakinen Kudeaketarako Azterlanaren arabera, obralan eta eraisketa hondakinen kudeaketaren balorazioa 577,97 eurotako da. 112/2012 Dekretuaren 5. artikuluan finkatutakoaren arabera, aurrekontuaren %120ko fidantza jarri beharko da obra baimena ematearekin batean (693,56 €). Fidantza itzularazteko, obrak amaitutakoan, haren itzultzea eskatu beharko da hondakinen kudeaketa amaiera txostena aurkeztuz (112/2012 Dekretua 6. artikulua). Orohar, bete beharko dira RD105/2008 eta 112/2012 Dekretua, ezinbestean.

693,56 €-ko fidantza, Kutxabankeko 2095 5069 07 1060024832 kontu korrontean sartuko da, interesatuaren izen-abizenak eta “*Fidantza: HZ.04/2022-0131*” jarriaz kontzeptuan.

- Jorge Lizarribar Sans ingeniari industrialak 2022ko martxoan idatzitako Proiektuaren arabera egin beharko da obra, beti ere, jarraian aipatuko diren eta udal arkitektoak bere txostenean ezarritako baldintzekin kontraesan batean sartu gabe.

- Lortutako beste baimen sektorialetan ezarritako baldintzak bete beharko dira. Besteak beste, honako hauek:

- Kantauriko Konfederazio Hidrografikoak ezarritakoak:

- *El peticionario queda obligado a mantener expedita, en estado natural, sin cierres y libres al paso, la zona de servidumbre de 5 metros de anchura medidos desde el borde del cauce ocupado por las aguas en las máximas crecidas ordinarias, que prescribe la vigente Ley de Aguas.*
- *La zona de servidumbre de cauces de la margen izquierda de la regata Urbil se revegetará mediante la plantación de arbolado autóctono de ribera perteneciente a la serie aliseda cantábrica, en marcos de plantación densos.*
- *(...) con carácter previo al inicio de las obras, el promotor deberá disponer del certificado del Registro de la Propiedad en el que se acredite que existe anotación registral indicando que la construcción se encuentra en zona inundable. Este certificado se presentará en la Agencia Vasca del Agua.*

- Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituretarako Departamentuak ezarritakoak:



Usurbilgo Udala

- *Errepideko elementu funtzional guztiak (seinaleak, arekak, kutxatilik...) bere horretan utzi beharko dira, eta, aldatu beharko balira, berriro jarriko dira.*
 - *Noranzko bakarra hartzeko baimena ematen da eta bestea beti oztoporik egongo da, ibilgailuek pasatzeko aukera izan dezaten, eta errepidea ez da inoiz itxiko zirkulaziorako.*
 - *Zirkulazioa errei batera mugatu behar denean, bi langile egongo dira irratitelefono, eskuko seinale eta 2. mailako gutxieneko babes tresneria (EPI) fluoreszente edo islatzaileekin, eta, bestela, semaforoa jarriko da trafikoa txandaka antolatzeko.*
- Ingurumen organoak ezarritakoak:
 - *El plan de actuación objeto de aprobación deberá ejecutarse bajo la supervisión continua de personal especialista en suelos contaminados, por lo que se requiere que, con carácter previo a la excavación, se comunique a este órgano ambiental la persona o personas responsables de esta supervisión y la fecha de inicio propuesta.*
 - *Con carácter previo a la evacuación (o, en su caso, reutilización) de los materiales a excavar en el emplazamiento, deberán remitirse a este órgano ambiental los resultados de la analítica de los acopios, etc. e información relativa al destino concreto previsto para los mismos (...).*
 - *Si se superan los VIE-B para el uso industrial, los suelos excavados deberán ser gestionados de acuerdo al Decreto 49/2009 (...).*
 - *Si se encuentran por debajo de los VIE-B uso industrial, pero superan los VIE-A, los suelos excavados podrían ser reutilizados como rellenos en la propia obra (...).*
 - Proiektuz kanpoko esku-hartzerik ez da baimentzen.
 - Onartutako proiektuari jarraiki egin beharko dira obrak, kasu bakoitzean eskatutako eta baimendutako aldaketekin.
 - Egindako obraren balioari dagozkion onurak ordaindu egingo dira; baita hesia, karga-igogailua, aldamia edo kontainerra ipintzeari dagozkionak ere, horrelakorik jarritz gero.
 - Udalak edozein unetan ikuska lezake lanen nondik norakoa, proiektuari edo onartutako eskaerari egokitu zaizkion jakiteko, baimenaren baldintzak bete diren ikusteko, eta orokorrean, betetzea dagozkion ordenantza eta araudiak konplitu dituen jakiteko, bestela legeak esandako neurriak hartuko dira. Esangura horrekin, obretan beti eduki behar da udalak emandako baimenaren aldakia, eta hala balegoke, proiektu teknikoarena.



Usurbilgo Udala

- Horrez gain, hauxe gogorarazi behar da: lizentzia eskatu duenak agindutakoa betetzeko eta eraikitzaileari betebeharrak zeintzuk diren jakinarazteko erantzukizuna daukala, eraikitzailea edo obragilea baita bete ez diren aginduen ordezkoko erantzulea.
- Espaloian nahiz galtzadan, hau da, kalean, inoiz ezingo da zaborrik utzi, ezta materialik edo beste inolako tresneriarik ere.
- Kalean kontainerra jartzeko premia badago, horretarako dagokion baimena eskuratu behar da, eta hau lan baimenetik kanpo dagoen gauza bat dela zehazten da. Kontainerren gainean esan beharra dagoena da, kontainerra ezin dela sekula gainezka egon obrako materialez eta zaborrez, eta haren ingurua ere, beti garbi eduki behar dela.
- Obra batean paratu behar den edozein aldarnio, bai eraikinaren kanpoaldean bai barnean, alde zuzenetik lizentzia edo baimena eskatu beharko da. Baimen horrek ez du zerikusirik oraingo obra lizentziarekin.
- Eremu publikoan lanak egin edo erreminta ekipo bat (konpresorea, iraulkia, etab.) instalatu behar izanez gero, babes-hesia jartzeko baimena eskatu behar da (zehaztu da hori ez dela obra-lizentziarena bezalakoa), hesiaren hedadura eta neurriak adierazi behar dira, eta, eskabidearekin batera, oinplano-plano bat aurkeztu behar da, hesiaren kokalekua zehatz-mehatz deskribatzen duena.
- Epeei buruzko baldintzak:
 - Obra lizentzia emateko erabakia jakinarazten denetik, 3 hilabeteko epean hasi beharko dira obrak.
 - Obrak bukatzeko gehienezko epea 6 hilabetekoa izango da.
 - Obra geldirik egon ahal izango da, promotoreari egotzi ahal zaizkion arrazoiengatik, gehienez, hilabetez.
 - Lizentzia honetan jasotako epeak luzatzeko eskabide arrazoitua egin daiteke.
- Obrak egitean bete behar diren baldintzak:
 - Aplikagarria diren Baimen edo txosten bakoitzean jarritako baldintzak bete beharko dira.
 - Jarduketa iragartzeko kartelak instalatu nahi izanez gero, aurretik beharrezko den baimena eskatu beharko da. Iragarkian agertzen diren testuek bi hizkuntza ofizialetan egon beharko dute.
 - Obren eremuko seinaleetan kontuan hartuko da Euskararen Erabilera Normaltzeko Udal Ordenantzan jasotakoa.
- Instalazio eta zerbitzuen sareei dagozkien baldintzak:

Obretan zehar kaltetuta gerta litezkeen sareak konpontzeko gastuak osorik



Usurbilgo Udala

ordainduko ditu eskatzaileak.

Eraikina dagoen partzelari eta urbanizatuko den guneari eragin diezaioketen aireko lineak kentzeko gastuak osorik ordainduko ditu eskatzaileak, eta eraikin berriko linea berriak eta energia elektriko, telefono eta gas harguneak lurpetik egin beharko ditu.

Eskatzaileak ordainduko ditu udal saneamendu-sarearekin bat egiteko gastu guztiak. Beti ezberdinu beharko dira ur zikinak eta euri eurak.

- **Obrak bukatutakoan bete behar diren baldintzak:**

Behin obrak bukatu ostean ondorengo dokumentuak aurkeztuko dira:

- **Obra Amaierako Ziurtagiria**, Zuzendaritza Fakultatiboak sinatu eta ikus onetsia.
- **Obraren Azken Likidazioa**, Zuzendaritza Fakultatiboak sinatu eta ikus onetsia.
- **Obrako hondakinak behar bezala tratatu direla justifikatzen duten agiriak**, eraikuntza eta eraisteetako hondakinak sortu eta kudeatzea arautzen duen ekainaren 26ko 112/2016 Dekretuak ezarritakoaren arabera
 - **Kalitatearen Kontrolerako Plana behar bezala bete dela justifikatzen duten agiriak**, eraikuntzaren kalitate kontrola arautzen duen urriaren 28ko 209/2014 Dekretuak ezarritakoaren arabera.
 - Urbanizazioa, bukaeran, nola geratu den erakusten duten argazkiak.

BIGARRENA: Erabaki honen berri interesatuari eta Kontuhartzaileari emango zaio.

Eztabaidarako gaiak amaiturik, alkateak batzaraldia bukatutzat eman du, goizeko 9:30ean direnean. Eta aztertutakoa eta erabakitakoa jasota gera dadin akta hau jaso da, alkateak izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.